

Historiako bi mug'arri, liburu banatan jasoak

Virginia Woolfen 'Farorantz' eleberria itzuli du Anton Garikanok, eta Curzio Malaparteren 'Larrua' polemikoa Jose Ramon Vazquezek

haintza Elustondo Donostia

Virginia Woolfek joan den astelehenean beteko zituen urteak. XX. mendeko eleberrigintzan berri-tzaileenetako bat izan zen idazle ingeles hori; batetik, kontakizunari baino gehiago erparatzen ziolako pertsonaien barnean gertatzen zenari, eta, bestetik, feminismoan egindako ekarpenagatik. Haren *Farorantz* nobela euskaraz argitaratu du Elkar argitaletxeak, Urrezko Biblioteka bilduman; Anton Garikanok itzulia. Bestalde, Jose Ramon Vazquezek itzuli duen Curzio Malaparteren *Larrua* obra kaleratu du erein eta Igela argitaletxeek elkarlanean, Literatura Unibertsala bilduman. Bigarren Mundu Gerra osteko urteetan idatzi zuen liburua italiarrak, eta polemika eragin zuen: Eliza katolikoak debekatuen zerrendan sartu zuen. Bai Literatura Unibertsala bilduma eta bai Urrezko Biblioteka bilduma EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretaren Elkartearen eta Eusko Jaurriartzaren bultzadaz sortuak dira.

Garikanok *Farorantz* eleberria itzuli duen bigarren aldia da. Duela 23 urte Ibaizabal argitaletxeak kaleratu zuen lehen itzulpena, eta, itzultzailearen arabera, ordutik hona garapen bat izan du haren itzultzeko moduak: «Zenbait esamolde garai batekoak ziren, eta orain beste modu batera idatzi ditut. Beharbada, orain gehiago hartu dut kontuan irakurlea. Koskak leundu ditut, modu atsegina-goto batean idatzi nahi izan dut».

Garikanoren arabera, kritikari askok nabarmendu izan dute eleberriak atal «autobiografikoak» dituela. Woolf haurtzaroan udako etxe batera joan ohi zen, eta parean uharre bat zegoen, faro batekin. Liburuari izena ematen diona faroa hori dela esan ohi dute. Gainera, Lily pertsonaia Woolf bera islatzen duela uste dute. Liburuaren hasieran, koadro bat margotzen hasten da, eta kontakizun guztian ari da horri bueltak, ezin bukatuta. Etengabeko ezin batean balego bezala. «Gogora ekartzen dit Virginia ere askotan ibiltzen zela gauzez erditu nahi eta ezinean».



Jose Ramon Vazquez eta Anton Garikano, atzo, Donostian liburuak aurkeztu aurretik. GORKARUBIO / ARGAZKI PRESS

«Nobela liriko» moduko bat da *Farorantz*, idazlearen iritzi. Prosazko eskeletoa du, baina gaineko jantzi guztiak lirikoak dira: «Hain dira poetikoak erabiltzen dituen irudiak, metaforak, adierazteko modua...». Woolfen begirada faroarena bezalako delatuste du Garikanok. Izan ere, toki jakin batean jartzen du fokua, eta hari heldu. «Sartzen da pertsonaren barruraino, eta erakusten ditu haren barren guztiak: kezkak, nahigabeak, itxaropenak... Irakurleak egiten duen ideia barruko da». Gizakia barrutik nolako den erakutsi nahi du Woolfek, eta lantzen duen gai nagusietako bat komunikazioarena da.

Woolfen ideien gaurkotatua nabarmendu du Garikanok. Askotan salatu izan zuen gizon-

koek gizartean zuten nagusitasuna, ez baitzegoen ados emakumeek gizartean zuten rol «pasiboarekin». «Emakumearen zeregin aldameneko gizasemeak zizuten ezintasunei irteera bilatzea izan behar zuela zirudien».

Napoli, gerra ostean

Bigarren Mundu Gerra ostean Ameriketako Estatu Batuek «okupatutako edo askatutako» Napoliri (Italia) buruzko kronika eleberria da *Larrua*. Xabier Ollarraren Igela argitaletxeko editorearen arabera, «paradoxikoa ere bada»: «Amerikanoak 1943an Napolin sartutakoan gertatzen direnak kontatzen dira. Askapena eta alaitasuna kontatu behar luke, baina askapenaren ondoko lagzarriak kontatzen dira».

Bi Mundu Gerrak bizi izan zuten Malapartek, eta esperientzia horietan oinarrituta dago eleberria. 1949an argitaratu zuten Italian, eta berehala sortu zen polemika haren inguruan: Eliza katolikoak debekatu egin zuten, eta hainbat italiar ospetsuk gogor kritikatu zuten, «ez-patriotikoa eta moralgabekoa» zela esanez.

Gerora, bi muturreko ikuspegi hedatu dira Vazquezek azaldu duenez: «Batzuen ustez, xaboi burbulla terroristen egilea da Malaparte, eta, beste batzuen iritzi, XX. mendea hobekien irudikatzen duen eleberria da».

«Gerra ondoren idatzitako liburuetatik asko atzera daiteke, baita gaur egun ere, eta hau da horietako bat», azaldu du Ollarrak.

Asklepioaren oilarra

Agus Perez

Antza denez, zikuta edan ostean hilzorian zegoela, hitz hauek esan zizkion Sokratesek Kriton bere lagun hurkoari: «Gogora ezazu oilar bat zor diogula Asklepori. Zorra kitatu gero!»

Halaxe dio kondairak historia bihurtuta. Zeren eta K. a. 399. urtean gertatutakoaz ahoz ahoko transmisioa eta Sokratesen ondorengoez idatzitakoa baino ez dugu. Kontua da Asklepio osasu-



KRITIKA Antzerkia
'Socrates: juicio y muerte de un ciudadano'

Egileak: Mario Gas eta Alberto Iglesias. **Zuzendaria:** Mario Gas. **Lekua:** Bilboko Arriaga antzokia. **Eguna:** Urtarrilak 27.

naren jainkoa zela greziarrentzat –Eskulapio erromatarrentzat–, eta haren omenez sakrifikatzen zirela oilarrak, sendabide eske. Hitz mitiko haiekin, beraz, bere ironia finaren azken maisulana utzi zigun Sokratesek, alde bategatik ordura arte izandako osasuna eskertuz –70 urterekin hil zen, bere umore onari esker segur aski– eta bestetik, kontraesan eredugarria sortuz, pozoituta hiltzen ari baitzen eta hartan bertan.

Gainera, ironiaren kontraesana are urrunago zihoan, bere aurkako epaiketari egin zizkion akuzazio larririk artean jainkoengan federik ez izatearena zegoelako. Beraz, esaldi kondentsatu hartan, publikoki erakutsi zuen jainkoengan sinesten zuela, eta aldi be-

rean frogatu, fede hark ez ziolako ezertarako balio izango, bere heriotzarekin frogatu ere, bizitza osoan erakutsitako koherentzia eta estoizismoa muturreraino eramanda.

Mario Gasek zuzendutako bertsiotan filosofoaren kontrako epaiketa eta haren inguruko zertzeladak irudikatzen dira nagusiki, guganaino heldu diren xehetasun urriehalik eta probetxu dramatiko handiena aterata. Hala izanik, Sokratesen kritikek mindutako boteretsu batzuen ezinegona sumatu dugu, eta amaiera aldera elkarrizketa mamitsu bat gauzatu da kondenatuaren eta bere lagun minaren artean, Kritonek Atenasetik erbesteratzeke erregutu omen baitzion, berak zeukan dirutzak lagunduta. Epa-

keta saio ospetsuan, ordea, gatz eta piperra falta izan zaizkio Sokratesen eta akusatzaileen arteko dialektikari, seguruenik testigantza fidagarriarik ez dagoelako baina, batez ere, egileek filosofo handiaren kategorioa bera ez daukate-lako.

Testu zaharrek diotenez, Sokratesen emaztea umore txarretan zebilen beti: ez zen harritzekoa, ordea, pairamen handikoa izan behar baitzen haren ironia lagzarriak eta muturreko onestunak dakartzan pobrezia jasateko! Dena dela, bera izan da kontakizun osoko emakume bakarra, eta Amparo Pamplonak besaulki patioan egin duen interpretazioari esker bizi izan ditugu emanaldi aseptiko eta zeremoniatu honetako una gizatariak bakarrak.